

## **KANALAK:**

Alde batetik, bezeroek gure produktua ezagutarazi dezaten, gure makinak jarriko ditugun guneetan, kartel batzuk jarriko ditugu. Bestetik, makinaren ondoan, iradokizun kutxa bat jarriko dugu bezeroak gurekin harremanetan jartzeko iradokizun bat baldin badute. Gure produktua ezagutarazteko kartel bat egitea, eraginkorragoa iruditzen zaigu, komunikabideetan albisteak egitea baino.

Bezeroak enpresak ezarritako hainbat puntuetara joan beharko du produktua kontsumitzeko, produktu horiek hainbat langileek banatuko dituzte hiriaren zehar, hauek, autorickshaw moduko bizikleta batzuetan joango dira, honekin, ingurumenean erregai bat behar duten garraioen kutsadura saihestuz.

Gure bezeroen pertzepzioa gure produktuarekiko osasuntsua eta ingurumena kontuan hartzen dugunarena izan behar du, ebaluazioa berriz, gure makinan edota besteetan aurki dezakenaren diferentzia izango da. Erosketarekiko jarduera erreza izango da dirua sartu orduko produktua eroriko da, eta bezeroari entregatuko zaio.

Gure bezeroak kontzientziatzeko, unibertsitate eta eskoletan hitzaldi bat egitea eskatuko dugu. Hitzaldi honetan, janari osasungarriari eta ingurumenari buruzko informazioa emango dugu, eta honekin batera hainbat jarduera egingo ditugu gaiarekin lotuta.